

# KORONABIRUSAK

SORTUTAKO KRISIAREN AURREAN

## GUZTION ARTEAN ELKARTASUN SARE ANTOLATUA



**GUZTION ARTEAN ELKARTASUN sare ANTOLATUA da.** Erakunde publikoen, Gurutze Gorriaren, Caritasen (688 662 773), hirugarren sektore sozialeko sareen sarearen (Sareen Sarea) eta boluntariotzako agentzien arteko lankidetzatik sortua, Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaian eta Boluntariotzaren Euskal Kontseiluan artikulatuak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren gidaritzapean. Laguntza formala (instituzionala), telelaguntza-zerbitzuaren eta telefono zentralizatu baten bidez (945 222 222), eta herritarren elkartasun antolatua bateratuz eta koordinatuz, osasun publikoko arduradunen eta Lehendakartzaren ezinbesteko lidergotik.

**Sarea herritarren erantzun solidarioa bideratzeko tresna da, eta, modu boluntarioan, etxetik atera ezin diren pertsona asintomatikoei lagundu nahi die haien babesa bermatzeko.**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

## GUZTION ARTEAN LORTUKO DUGU!

**70 urtetik gorakoa bazara eta/edo mendekoa, sintomarik ez baduzu** (sukarra edo arnas sintomak, bereziki ez tul lehorra edo arnasa hartzeko zailtasuna), **familiaren laguntzarik ez baduzu eta laguntza behar baduzu:**

- **Premia biziko homidurak eskuratzeko (elikagaiak, higiene- eta garbiketa-produktuak eta premia biziko beste hornidura batzuk).**
- **Zaborra jaisteko.**
- **Osasun-txartel Indibidualean agindutako sendagaiak jasotzeko.**
- **Zure maskotaz arduratzeko (paseatzera atera, larrialdiko albaiari-arreta).**
- **Atzeratu ezin diren izapide eta kudeaketak egiteko.**



**Deitu 945 222 222 telefonora (24 ordu).**

**Krisi-egoerak irauten duen bitartean, eta, bereziki, etxean geratzeko gomendioak irauten duen bitartean, honako hauen laguntza emango dizugu: boluntario bat edo, salbuespeneko kasuetan, bi** (beti berberak); 17 urtetik gorakoak eta 65 urtetik beherakoak; sintomarik gabekoak eta beren burua kaltebera bihurtzen duen patologia kronikorik gabekoak; zure etxera ohikotasunez joango dira (beharren arabera); haiek babesteko eta zu babesteko beharrezko neurriak hartuko ditugu, **Osasun Sailak ezarritako jarraibideekin** eta sarean parte hartzen duen erakunde edo instituzio baten babespean. **Berme guztiekin.**

Gainera, zurekin telefonoz harremanetan egongo gara.

**Lagundu nahi eta laguntza eskain dezakeen pertsona bazara, eta parte hartzeko baldintzak betetzen badituzu, deitu 945 222 222 telefonora (Gurutze Gorria) edozein unetan (24 ordu). Edo jarri harremanetan Caritasekin (688 662 773)**

Aseguru baten estaldura izango duzu eta laguntza-sareko erakundeek lagunduko eta orientatuko zaituzte, laguntzen dituzun pertsonak zaintzeko eta zeure burua zaintzeko. **Berme guztiekin.**

Guztion osasuna zaintzeak mugimenduak mugatzea eskatzen du eta, horregatik, soilik behar-beharrezkoak diren zerbitzuak egitea. Artatutako pertsonen osasuna zaintzeak etxe bakoitzean arreta ematen duten boluntarioen kopurua murriztea ere eskatzen du.

### PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

**Adina:** 17 urtetik gora eta 65 urtetik behera izatea.

**Prestasuna:** nahikoa datorren hilabetean (gutxienez bi edo hiru ordu, astean bi edo hiru egun), pertsona batek edo, salbuespeneko kasuetan, bik (ez gehiagok) etxe bat zaindu ahal izateko.

**Osasun-egoera:** sukarrak edo arnas sintomarik ez duten pertsonak, bereziki ez tul lehorra edo arnasa hartzeko zailtasuna. Esku-hartze bakoitzaren aurretik tenperatura hartze bat egingo da, eta ezingo da 37 gradutik gorakoa izan.

**Patologia kronikorik gabe:** diabetesa, kardiopatiak, arnas gutxiegitasuna, immunogutxitzaileekin tratamenduan egotea, etab.

**Gaikuntza:** herritar guztientzako gomendioak irakurtzea eta ikustea, baita etxez etxeko laguntzarako boluntarioentzako jarraibide espezifikoak ere, Osasun Sailak ezarritakoak.

**Gertutasuna:** bere bizilekuak artatutako pertsonen bizilekutik hurbil egon behar du (auzo berean edo ondoko auzoetan, udalerrri berekoak edo mugakideak).

**Erakundearekiko lotura:** erakundearekiko etengabeko harremana, haren jarraibideei erantzutea eta ekintza bakoitzaren gauzatzearen berri ematea, eta, hala badagokio, antzemandako egoera edo beharrak jakinaraztea.

Boluntariotzaren arloko araudia betetzea eta, bereziki, bermatzea pertsona horiek uneoro erakundeek kontratatutako Erantzukizun Zibileko eta Istripuetako aseguruaren estaldura izango dutela.